GLOBERNANCE
GOBERNANTZA DEMOKRATIKOAREN INSTITUTUA
INSTITUTO DE GOBERNANZA DEMOCRÁTICA

kuna bbk

BBK KUNA INSTITUTUA JARDUERA-TXOSTENA (2020-2021)

BBK KUNA Institutua bezalako erakunde batentzat, epe luzeaz, etorkizun ez berehalakoaz eta gure gizartearen funtsezko joerez arduratu gura duelarik, lehen txosten bat oso gutxi da, hasiera baino ez da, eta, hala ere, asmo handiko enpresak ere zerbaitekin hasten dira. Serie baten hasiera bezala irudikatzen dugu, eta atzetik etorriko dira beste gertaera edo une gogoangarri eta beste pertsona batzuk, Bizkaiaren etorkizunak aztertzen jarraituko dutenak, etorkizun oparoak baina ez arriskurik eta ziurgabetasunik bakoak. Etorkizun horren esplorazio bat denez, ez du behin betiko epairik eman nahi, ez eta saihestezina izango litzatekeen etorkizunik asmatu gura ere, baizik eta joera posibleak aztertu; gure hipotesiak zuzentzen joango den serie baten lehen saiakera gisa aurkezten dugu, hausnarketa kolektiboko ariketa hau geroagoko edizioetan hobetzeko interesarekin. Agian etorkizunaren gauzarik onena da ez dagoela erabat idatzita, baizik eta gure eskuetan dagoela, eta neurri handi batean, irudikatu, pentsatu eta taxutzen dugun moduaren mende dagoela.

HITZAURREA

Txosten honetan lanordu eta deliberazio askoren, baina batez ere ilusio eta konpromiso handien emaitzak laburbiltzen dira. Adoregarria da hasierako aditu-talde honetako kide izateko deialdiek, baita ikerketa-ekintzako proiektu zehatzak egiteko abian jarri zirenek ere, gure itxaropenik onenak ere gainditu zituzten harrera izan zutela jakitea. Pertsona haien guztien ekarpenik gabe, txosten hau une bateko dibagazio bat baino ez litzateke izango, baina haien ezagutzari eta inplikazioari esker, Bizkaian pentsamendu estrategikoko eta, batez ere, gizarte-eraldaketako etapa berri bat irekiko dela espero dezakegu. Lurralde honetako arazoak asko eta konplexuak direla egiaztatu dugu, baina are handiagoa da bertoko jendearen energia eta adimen banatua, eta BBK KUNA Institutuari hori bultzatzea eta koordinatzea baino ez dagokigu.

Nora Sarasola

BBKren Gizarte Ekintzako zuzendaria

Daniel Innerarity

Globernanceko zuzendaria

0. Hitzaurrea

1. Sarrera
    1.1. Aurrerapen-txostenaren xedea
    1.2. BBK KUNA ekosistemaren aurkezpena
    1.3. BBK KUNA Institutua

2. 2022-21 jarduera: BBK KUNA Institutuko Adituen Kontseilua:
    2.1. Adituen Kontseiluaren Dinamika 2020-2021
    2.2. Leheneste-prozesua
        2.2.1. Leheneste-prozesua
        2.2.1. Metodologia
        2.2.2. Garapen

3. Lehenetsitako gaiak

4. Lehenetsitako gaiak eta GJHen esparruarekin duten lotura

5. Lehenetsitako gaiak gauzatzea 2021-2022
    5.1. Abian diren ikerketa-ekintzako proiektuak
        5.1.1. Zero proiektuak
        5.1.2. Proiektu bereziak
    5.2. KUNAn aurreikusitako ikerketa-ekintzako proiektuak
        5.2.1. KUNA-co proiektuak
    5.3. Lehenetsitako gaiak bultzatzeko beste proiektu batzuk
        5.3.1. Ekitaldia: gizakien betebehar eta eginbeharren gutun unibertsala eta Saramago urteurrena
    5.3.2. Green Digital Congress

6. Etorkizun hurbilerako ikaskuntzak

7. Ondorioa

AURKIBIDEA

1. Sarrera



1.1. Aurrerapen Txostenaren xedea

Dokumentu honek BBK KUNA Institutuak 2020-2021 zikloan egindako lana jasotzen du. Jarduera horrek, BBK KUNA Institutuaren Zuzendaritza Batzordeak koordinatuta, dokumentu honetan laburbildutako funtsezko bi ardatz izan ditu:

1. Gaikako lehentasunen mapa ezartzea, BBK KUNA Institutuaren jardun-eremuak identifikatu ahal izateko epe labur eta ertainean.
2. Lehenetsitako gaiei heltzeko prozesuak gauzatzen lagunduko duten ekintzak eta proiektuak garatzea.

BBK KUNA Institutuko Adituen Kontseiluaren inplikazioa funtsezkoa izan da gaiak identifikatu eta lehenesteko. Horren haritik, hemen aurkezten den sintesia ez da amaitzen Kontseiluko kideek egindako lan edo behar honetan. Bertan, BBK KUNA Institutuko Zuzendaritza Batzordeak egindako ekintzak ere jasotzen dira, bai lehenetsitako gaiei lotutako ikerketa-ekintzako prozesuak abian jartzeko, eta bai etorkizuneko erronketara hobeto hurbiltzeko gogoeta-prozesuak zabaltzeko ere.

Txostenaren helburuei dagokienez, ardatz hauetan jasotzen dira:

- **Gardentasuna**: txosten honen bidez, BBK KUNA Institutuaren jardueraren berri eman gura zaie bizkaitar guztiei, bai eta jarduera horren ondorioen eta emaitzen onura jaso dezaketen eragile guztiei ere (bertokoak izan edo ez). Gardentasun horrek, era berean, Bizkaiko etorkizuneko erronken definizioan eta erronka horiei aurre egiteko moduan parte-hartze eta inplikazio handiagoa sustatzeko abiapuntua izan gura du.
- **Ikaskuntza**: egindako bidea laburbiltzeak BBK KUNA Institutuaren funtzionamenduari buruzko hainbat ikasbide ateratzea ahalbidetzen du. Lehen ziklo honek esplorazio-osagai bat izan du, eta horri esker, indarguneak eta jardunbide egokiak identifikatu ahal izan dira –batez ere, metodologikoak–, baina baita hobekuntza-puntu posibleak ere, BBK KUNA Institutuaren etorkizuneko jarduera egituratzeko eta, ondorioz, gogoeta eta ikerketarako gune gisa finkatzeko, ekintzari uko egin barik. Zehazki, bizi izandako esperientziak elkarlanerako bokazioa sendotzen du –elize laukoitzaren logikan eta KUNAren ekosisteman duen kokapenean bereziki islatua–, eta etorkizuneko jarduera-ildoak planteatzerakoan ziurgabetasun-maila murrizteko aukera ematen du.

- **Etorkizunari begira:** dokumentu honetan jasota dauden BBK KUNA Institutuaren lehen urrats horien ondorioz, hainbat ekintza planifikatu ahal izan dira hasierako hausnarketak ikerketetan nahiz ekintzetan gauzatzen jarraitzeko. Txosten honetan sartzea, 2022rako aurreikusitako jardueraren aurrerapena izateaz gain (txosten hau argitaratzen denerako hainbat jarduera jada eginda egongo dira), nahitaezkoa da etorkizunean kontuak emateko ere.

1.2. BBK KUNA ekosistemaren aurkezpena

BBK-k lehiakortasun iraunkor edo jasangarriarekin duen konpromisoaren eta 2030 Agenda jarduera-ildo guztien bide-orri gisa hartzearen ondorioz, 2021ean BBK Kuna jaio zen, Garapen Jasangarrirako Helburuen Etxe (GJH) gisa, garapen iraunkor edo jasangarriarekin lotutako hainbat eragileren parte-hartzea bultzatzen duen gizarte-berrikuntzarako gune bat, etorkizuneko erronkei erantzuteko irtenbideak elkarrekin diseinatzeko eta elkarrekin sortzeko. Gainera, BBK Kuna nazioarteko zentro aitzindaria izateko helburuarekin eratu da, eraldaketa sozialari, auzoaren parte-hartzeari eta gizarteko eragile guztien (herritarren, unibertsitate eta ikerketa-zentroen, administrazio publikoaren eta enpresaren) baterako lanari aplikatutako ikerketarekin.

BBK Kuna **hiru oinarri**ren gainean eraiki da:

1. Agenda 2030 eta Garapen Jasangarrirako Helburuak.
2. Elkarlana: proiektu guztiak erakunde eta pertsonekin elkarlanean egiten dira.
3. BBK Kuna Institutua: organo honen bidez globaltasunaren eta tokikoaren arteko ikuspegia lortzen da, 2030 Agenda Bilbo eta Bizkaiko errealitatera hurbilduz, erronkak eta gaiak lehenetsiz. Era berean, tokikotik globalera lan egiten da, tokiko ekintzek GJHak lortzeko duten eragina aztertuz.

BBK-k **sustatutako hiru ekintza-ildo** eta proiektu **nagusiak** honako hauek dira:

1. Kuna Lab: ildo honetan, erakundeekiko lanaren bidez GJHak lortzea lantzen da. Besteak beste, honako hauen bidez bultzatzen da:

a) Kuna-co Proiektuak: eragile anitzeko taldeek sortutako ikerketa-ekintza proiektuen deialdia, 2030 Agendarekin lotutako erronkei erantzuteko.

2. BBK Kuna 2030 Kideak: Bizkaiko/Euskal Herriko sektore anitzeko aliantza 83 erakunderekin, lankidetza eta berrikuntza soziala indartzeko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-konpromisoarekin.

2. **Herritarren parte-hartzea:** proiektu hauen bidez, pertsonen ahalduntzearen eta aldaketa-eragile gisa dituzten gaitasunen bidez, GJHen lorpenean eragitea bilatzen da.

a) **Auzoko Aholku Batzordea:** Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Atxuri auzoen arteko lotura izatea du helburu, jarduketa-proposamenak egiteko. Zozketaz eratua, BBK Kunari buruzko zenbait alderdi elkarrekin erabakitzeko gunea da.

b) **The Future Game:** The Future Game esperientzia gamifikatua da, eta, horren bidez, gazteek mende honetako joera eta erronka garrantzitsuenak aztertzen dituzte, datorren etorkizunari buruzko ikuspegiak eta prototipoak sortzeko beren ingurunean eragin edo inpaktuarekin.

c) **Ikaskuntza-komunitateak:** herritarrak ahalduntzera bideratutako ekimenak, elkarlaneko ikaskuntza egiten dute eta ezagutza irisgarria eta irekia sortzen dute. Interes komuneko erronka baten inguruan ikasteko batzen diren pertsona-taldeen inguruan sortzen dira. BBK Kunak dinamizazioa, espazioa eta laguntza ekonomikoa eskaintzen dizkie jarduerak garatzeko.

d) **Haurkuna/Gaztekuna:** haur eta gazteekin garapen iraunkor edo jasangarriarekin lotutako alderdiak lantzeko gunea, esperientzia ludikoen eta elkarlaneko tailerren bidez.

3. **Prestakuntza**: BBK Kunak etorkizunaren aldeko apustua egiten du, eta horretarako funtsezkoa da etengabeko prestakuntza eta aldaketara egokitu edo moldatzea.

a) **BBK Bootcamps:** langabeei zuzendutako prestakuntza trinkoak; parte-hartzaileak programazio digitalean eta zibersegurtasunean trebatzen dira, % 80 eta % 100 arteko enplegagarritasunarekin.

b) **ETEentzako GJH prestakuntza:** tailer honen ardatza GJHak enpresa-estrategian txertatzea da.



1.3. BBK KUNA Institutua

BBK Kuna Institutua zeharkako Think Tank proiektua da, BBK Kuna ekimenaren barruan. Daniel Innerarityk zuzentzen du, eta lurraldeko ahots erreferenteak eta BBK eta GLOBERNANCE erakundeetako ordezkariak batzen ditu. Datozen urteetarako erronka estrategikoak identifikatzea eta lehenestea du helburu, baita hori egiten hasteko modurik onena zehaztea ere.

Horretarako, "Adituen Kontseilua" du (aurrerantzean, Kontseilua), kontsultarako edo aholku-emailea, bere buruaren izenean parte hartzen duen jendez osatua, eta "helize laukoitz"eko eragileen ordezkaria. Hainbat jarduera-eremutan esperientzia eta interesa duten eta kontseilu ireki bat osatzen duten pertsonak. Lehen funtzionamendu-zikloan (2020-2021), jarraian zerrendatutako profesional hauen ekarpen desinteresatuak izan ditu:

Ane Agirre

Vesper enpresako bazkide sortzailea

Jordi Albareda

Founder and CEO Fair Saturday Foundation

Juanjo Álvarez

Zuzenbidean doktorea, Globernanceko idazkari nagusia

Antón Arriola

Idazlea, BBK Fundazioaren Patronatuko kidea eta Lealtad Fundazioaren Aholku Batzordekoa

Arantza Atxa

UNESCO Etxearen zuzendaria Euskadin

Leire Bilbao

Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziako zuzendari nagusia

Ana Enrich

Ashokako zuzendariordea

Lorena Fernández

UDko nortasun digitaleko zuzendaria

Javier Font

Intelligence & Public Affairs-en Lehendakariorde exekutiboa

Jorge García del Arco

AQUADATeko sortzailekidea

Ivan Marten

Orkestrako lehendakaria

Mikel Mancisidor

NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeko kidea (2013-2024)

Cristina Ruiz

Bilboko Udaleko zinegotzi ohia, Amatech Group-eko RRII Zuzendaria eta Globernance-ko kidea

Ángel Toña

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu ohia

Xabi Uribe-Etxebarria

Sherpako CEO, berrikuntza eta AA arloetako ekintzailea

Identifikatutako eta lehenetsitako erronkak gauzatzeko, **Zuzendaritza Batzorde** bat –**BBK**-k eta **GLOBERNANCE**k osatua– eratu da, eta Kontseiluak aurrez identifikatu eta lehenetsitako erronka sozialei aurre egiteko ekimen berritzaileak sustatu eta bultzatuko ditu, baita luzamendu barik ekitea egokitzat jotzen diren beste batzuk ere.

Ikerketa/ekintzako proiektuak – "Kuna-co Proiektuak" edo “Zero proiektuak”–, kongresuak, jardunaldiak edo tailerrak dira gure ekimenetako batzuk, horien bidez jada gauzatu edo gauzatuko direlarik etorkizuneko erronkei aurre egiteko bideak.

2. 2022-21 jarduera BBK KUNA Institutuko Adituen Kontseilua

Jarraian, Adituen Kontseiluak 2020-2021 zikloan garatutako jarduera deskribatzen da. Batez ere, (1) Bizkaiak aurre egin beharreko erronka estrategikoei buruz hausnartzea eta (2) BBK KUNAtik bultzatu eta landu beharko liratekeen gaiak lehenesten laguntzea.

2.1. Adituen Kontseiluaren Dinamika 2020-2021

BBK KUNA Institutuaren Zuzendaritza Batzordeak lehenengo zundaketak eta gonbidapenak egin zizkien profil oso desberdineko pertsonei Adituen Kontseiluko kide izateko, eta 2020ko urriaren 2an bildu zen Kontseilua lehen aldiz. Lehenengo bilera hura aurrez aurrekoa izan zen, eta bertan eman ziren ezagutzera Zuzendaritza Batzordea eta BBK KUNA Institutuaren helburuak, Adituen Kontseiluaren beraren osaera, … baita lehen ekarpenak egiteko mekanika ere, data-kronograma barne.

COVID-19aren pandemiak sortutako egoerak eta bertako kideen profilen eta jatorrien aniztasunak ahalbidetzen zuen neurrian, Kontseiluaren bilerak aurrez aurrekoak izan zitezen saiatu gara.

Hala ere, beti ez da posible izan, eta aurrez aurrekoa eta telematikoa konbinatu dira, eta dinamika konbinatu ugari sortu dira: (1) aurretiko prozesuak, linean banako komunikazioaren eta hodeian egindako lanaren bidez; (2) lan-bilerak, aurkezpenak eta informazio-saioak, bai telematikoak bai aurrez aurrekoak; eta (3) ondoren, banakako ekarpenak bildu eta trukatzeko lana.

2.2. Lehenesteprozesua

Kontseiluak egindako l**eheneste-prozesua** ariketa mailakatu, parte-hartzaile eta metatzaile gisa planteatu zen hiru fasetan, eta lehentasunen txosten zehatz bat egin zen, Zuzendaritza Batzordeak azter zezan, jarduketa zehatzen plan bat egiteko helburuaz.

2.2.1. Metodologia

Adituen Kontseiluak egindako lanak funtsean *design thinking* eta *focus groups* saioen berezko metodologiak konbinatzen zituzten lan-dinamikei jarraitu zien. Laburpen gisa, jarraian datozen lau printzipioak nabarmendu behar dira, metodologiaren ardatz egituratzaile gisa:

1. Elkarlana: Kontseiluko kide guztiek berdintasunean parte hartu zuten gaiak lantzeko prozesuaren fase guztietan,

beren artean estali edo betez erronka bakoitzak izan ditzakeen ezagutza- eta esperientzia-arloak.

2. Mailaz maila: Kontseiluak, hasieran, lan-esparru zabala zehaztu zuen, abiatzeko ezelango aukerarik baztertu barik, eta, azkenean, zortzi gai zehaztu zituen zorroztasun analitikoz.
3. Metagarria: lehen fasetik aurrera lortu beharreko helburuak ezarri ziren heinean, orokorretik zehatzera igarotzea erraztu zen, une oro aprobetxatuz aurretik jada garatutako ezagutza eta lana.
4. Trans eta diziplinartekoa: lehentasunen mapa egiteak eta, batez ere, horiek 'Kontseiluaren Lehentasunen Txostenean' behin betiko zehazteak bi gauza konbinatu zituzten: erronka bat beraren ikuspegia hainbat diziplinatatik moldatua, eta askotariko diziplinen esku-hartzea eskatzen zuten erronken planteamendua egitea.

Kontseiluak egindako lana KUNA eta Globernanceko lantaldeak zehaztu zuen, garapen-, kontraste- eta baliozkotze-elementuak tartekatuz proiektuaren aurrerapen-fase guztietan.

2.2.2. Garapena

Metodologia hori Kontseiluak egindako lanaren aurrerapen osoan zehar ezarri zen, harik eta Adituen Kontseiluaren Lehentasunen Txostena lortu arte.

Hiru fasetan egituratutako lana: lehenengo fasean, lehenetsi beharreko gaiak bildu ziren; bigarrenean, lehen fasean iradokitako gaiak eztabaidatu eta lehenetsi ziren; eta hirugarren eta azken fasean, Kontseiluak bigarren fasean lehenetsitako zortzi gaiak garatu ziren.

Gaiak biltzeko fasea

Fase honetarako, banako ekarpenak egiteko formatu bat eman zitzaien Kontseiluko kideei, forma aldetik bilketa homogeneo samarra egiteko, ondoren baterako eztabaida edo deliberazioen garapena errazteko. Garapen hori Kontseiluaren 2020ko urriaren 2ko lehenengo bileraren eta urte bereko abenduaren 18rako deitutakoaren arteko aldian egin zen. Bi hilabete eta erdi horietan Kontseiluko kideek lehentasunen mapa bat sortu zuten, ondorengo faseetan sakontzeko. Hogeita hamazortzi lehentasunen mapa horri esker, zortzi gai-multzo eratu ziren, baztertzaileak ez zirenak, baina leheneste-prozesua hobeto antolatzeko aukera ematen zutenak. Garrantzitsua da azpimarratzea, lehen fase honetan gaiak proposatzeko orduan zehaztasun-maila desberdina izan bazen ere, BBK KUNA Institutuaren ezagutza kudeatzeko eskema presente egon zela une oro (bereziki helize laukoitzari dagokionez).

Zerrenda horri esker, halaber, gaikako oreka egokia bermatu zen, Kontseiluan bertan kide berriak behar izan zitzaketen ezagutza-arloak identifikatu ziren, eta gaien esparru bat ezarri zen KUNAtik 2022an bertan sortzea aurreikusitako ikerketa-ekintza proiektuetatik haratago.

Deliberazio- eta leheneste-fasea

Kontseiluko kideek egindako ekarpenak jaso ostean, aipaturiko aurrez aurreko bilkura egin zen 2020/12/18an. Bertan, deliberazio-dinamika parte-hartzaile baten bidez, aurreko fasean aurkeztutako 38 proposamenak eztabaidatu ziren, eta mailaz maila lan egin zen, Kontseiluak zortzi gairi buruzko adostasuna lortu arte.

Era berean, eztabaidari esker, gaiak konbinatu ahal izan ziren, bai eta haien enuntziatuak zehaztu, osatu eta doitu ere. Azkenik, lehenetsitako zortzi gaietatik, sei BBK KUNA Institutuak bultzatu beharreko ikerketa-ekintza proiektuen metodologiarekin bat etor zitezkeen gai gisa planteatu ziren (edo beste esplorazio-ekimen mota batzuk, hala nola kongresuak eta jardunaldiak), eta bi gai berezitzat jo ziren, KUNA proiektuaren berezitasunetakoren baterako egokiak zirelako, baina argi eta garbi bereizita gizarte-berrikuntzari lotutako *Think Tank* batetik espero litezkeen gaietatik.

Lehenetsitako gaien garapen landuaren eta behin betiko baliozkotzearen fasea

Azkenik, hirugarren fase batean, 2021eko urtarrilean, otsailean eta martxoan, BBK KUNA Institutuko Adituen Kontseiluaren Lehentasunen Txostena egin eta baliozkotu zen. Horretarako, lehenik eta behin, Kontseiluko kideek eredu komun baten arabera lehenetsitako gaien garapena sakondu eta osatu zuten, eta bereziki izan zituzten kontuan sor zitzaketen ekintzen modalitatea eta zer-nolako eragileek parte har zezaketen Bizkaian. Azken helburua dinamika parte-hartzailearekin eta mailakatuarekin jarraitzea zen. Dinamika horrek, era berean, gutxieneko homogeneizazioa ahalbidetu behar zuen oinarrizko lau elementutan: deskribapena, beharrizanaren justifikazioa, helburuak eta helize laukoitza. Kontseiluaren lan horretatik abiatuta, dokumentu zehaztu bat eta BBK KUNA Institutuko Adituen Kontseiluaren Lehentasunen Txostenaren bertsio sintetizatu eta maketatu bat egin ziren.

BBK KUNA Institutuko Adituen Kontseiluaren Lehentasunen lehen Txostena 2021eko apirilaren 16an aurkeztu zitzaion Kontseiluari, zehaztapen- edo sakontze-maila bat gehiago eskalatzera bideratutako talde-dinamika baten bidez behin betiko baliozkotzeko. Saio hura osatzeko, GJHen dibulgazioari buruzko informazio-ponentzia inspiratzaile bat egin zen, Javier Cortés aditu gonbidatuak emana.

Leheneste-prozesuaren faseetan zehar, adituen banakako hausnarketarako uneak eta deliberazio kolektiboko uneak konbinatu dira, eskema honetan ikus daitekeen bezala:

I. Banakako ekarpenen prozesua. Emaitza: 38 gai.
II. Lehentasun kolektiboko saioa (Talde-dinamikak). Emaitza: 8 gai lehenetsita.
III. Lehenetsitako 8 gaiak banaka sakontzeko prozesua. Emaitza: Kontseiluaren Lehentasunen Txostenaren lehen zirriborroa, non lehenetsitako 8 gaiak jasotzen diren, lanketa- eta zehaztasun-maila handiagoarekin.
IV. Kontseiluaren Lehentasunen Txostenaren zirriborroan jasotako 8 gai lehenetsiak taldean kontrastatzeko saioa (Talde-dinamikak). Emaitza: Adituen Kontseiluaren Lehentasunen Txostena baliozkotzea.

2.2.3. Ondorioak

Adituen Kontseiluak egindako lanari esker, funtsezko hiru gai nabarmendu ziren:

1) GJHen balioa, hurrengo hamarkadan berrikuntza, ikerketa, ekintza eta dibulgazioa egituratu behar duten zeharkako lehentasun gisa. Zeharkako elementuak, gainera, erraztu egiten du zehaztapena heterogeneoa eta dinamikoa izatea (testuinguruari, eragileei, irismenari edo inpaktuari dagokienez).
2) Europan tokiko, nazio-estatuko eta nazioz gaindiko ekimenak erronka partekatu edo komunen inguruan lerrokatzea. Horren froga litzateke erakunde- eta lurralde-maila guztietan norgehiagokako deialdi eta bikaintasun-proiektu gehienak bat datozela arreta helburu baliokideetan jartzean.
3) GJHekin lotutako ekintzak tokiko ingurune espezifikoetan moldatu edo gauzatzearen garrantzia, non erronkak modu zehatzean, ukigarrian eta hurbilean adierazten diren, horrela ondoriozko proiektuak eta ekintzak gauzatzeko fase guztietan herritarrek parte har dezaten erraztuz. Alderdi horrek ez du ikuspegi global edo orokorra baztertzen, baizik eta elkarren osagarri dira.

3. Lehenetsitako gaiak



GAI OROKORRAK	
Larrialdi klimatikoan lurralderako lehentasunak ebaluatzea ingurumenaren ikuspegitik	
Helburua	*Justifikazioa*
Klima-aldaketari aurre egiteko, **aldaketak egin behar dira giza jardueran eta garapen ekonomikoko eredu globaletan**. Horretarako, lurralde bakoitzaren egiturazko baldintzak aztertu behar dira, epe laburrerako eta luzerako eragin edo inpaktua neurtzeko aukera emango duten adierazleekin ekintza zehatzak planteatzeko.	Azken mendeko garapen ekonomiko handiak **ingurumen-kutsadura eta klima-aldaketa** arazo global bihurtu ditu, eta azken hamarkadetan areagotu egin dira arazo horien ondorioak. Hori dela eta, ezinbestekoa da berehalako zehar-erantzunak planteatzea.
Lehen sektorearen garrantzia justifikatzen duen azterketa, gastronomia jasangarriaren ereduarekin lotuta, lurraldearen ezaugarri edo nortasun-ikur gisa	
Helburua	*Justifikazioa*
Beharrezkoa da **lehen sektoreak** (bereziki bere lehengaiek, tokiko berezitasunek eta ekoizteko moduak) eta **tokiko gastronomiak** duten zeregina berrikustea, jasangarrita-sunerako baliabide gisa maila guztietan (gizartean, ekonomian eta ingurumenean) duten eginkizuna indartzeko.	Lehen sektorea eta gastronomia funtsezkoak dira lurralde bakoitzaren egitura soziala, ekonomikoa eta ingurumen-kontsiderazioa definitzeko. Era berean, COVID-19ak eragindako egungo osasun-egoerak **ondorio** latzak izan ditu **sektorean**, eta, ondorioz, are beharrezkoagoa da haren tratamendua.
Gizarte zahartua, eta horren erronkak eta inplikazioak	
Helburua	*Justifikazioa*
Zahartzearen kudeaketa-eredu berriak egitea, zeharkako elementuak txertatuz adin guztien eta guztietarako gizartea eraikitzen laguntzeko, hala nola genero-ikuspegia, gizarte-arrakala berriak identifikatzea eta zuzentzea, edo migratzaileen kolektiboei eragiten dieten kasuistika espezifikoak.	**Jaiotza-tasen jaitsiera sistematikoa, bizi-itxaropenaren igoera** eta **bizi-urte osasuntsuen ehunekoan geldialdia** bizi-itxaropenarekiko: faktore horiek EB-27ko biztanleria-egitura aldatzen ari dira, ekonomia-, kultura- eta gizarte-erronka ugari sortuz.

Garapen ekonomiko eta sozial inklusiboa	
Helburua	*Justifikazioa*
Desberdintasun ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, beharrezkoa da **etorkizuneko itxaropenak sortzeko, belaunaldien arteko ongizatea bermatzeko** eta **gizarte orekatuago eta desberdintasun gutxiagokorantz** aurrera egiteko aukera emango duen garapen-eredu baterantz aldatzea.	Garapen ekonomiko eta sozial inklusiboaren gaiak berebiziko garrantzia izango du **kontratu sozial berri** bat eratzeko, gero eta handiagoa den desberdintasunari –geldiezina edozein garaitan eta areagotua krisi-garaian– aurre egingo diona, bai eta aurrerapen sozial eta ekonomikoaren eredu berrietarako ere.
Berrikuntzako ekosistemak	
Helburua	*Justifikazioa*
Berrikuntza gizarte-aurrerabidearen katalizatzailea da, eta inpaktu handiko aldaketak sustatzen ditu gizarteko hainbat sektoretan: bai **lan-merkatuan eta herritarren ongizatean;** bai **autonomia, efizientzia eta autosufizientzia** energetikoaren gehikuntzan duen eraginean; bai biztanleriaren konektibitatearekin lotutako **tokiko erronkei eta erronka globalei irtenbide iraunkorrak** ematean, eta, ondorioz, herritarren inklusio demokratikoan.	Ekintzailetza berritzailearen sustapenak edozein lurraldetan **balio erantsi handiko garapen ekonomikoa sortzeko ahalmena** du. Hala ere, **ekosistema mesedegarri bat** sortu barik **ekintzailetza sustatzea kaltegarria izan daiteke**; izan ere, beharrezko baldintzak sortzen ez badira, **ekintzailetza-proiektu berritzaileek porrot egiteko arriskua handitzen da**. Hori dela eta, beharrezkoa da finantzaketan ardazten diren neurrietatik haratago joatea, aldaketa sistemikoagoak bilatzeko.
XXI. mendeko erronketara egokitutako hezkuntza-sistema eta metodo pedagogikoak, berdintasun- eta bikaintasun-tresna gisa	
Helburua	*Justifikazioa*
Arlo teknikotik haratago doazen erronkak dituen XXI. menderako hezkuntza-eredu bat eraiki behar da. Hezkuntza horren helburua **eskubide osoko herritarrak sortzea izan behar du, ongi prestatuak eta guztion ongia eraikitzeko ardura dutenak.**	Hezkuntza-sistemen hobekuntzek eta aurrerapenek **arazoetarako irtenbideak** bilatzen dituzte, zenbait arlotan errendimendu baxuarekin, biztanleriaren hezkuntza-mailarekin eta hezkuntzan parte hartzearekin lotutako arazoetarako.

Horrela, hezkuntza-curriculumaren eredu bat gainditzen lagundu behar da. Eredu horretan, irakaskuntza-gaitasunek eta ebaluazioen ondoriozko eskakizunek eduki teknikoak lehenestera bultzatzen dute irakasle-komunitatea, beste trebetasun batzuen aurretik.	Hala ere, gero eta gehiagok ulertzen dute hezkuntza eta prestakuntza inklusiboak eta kalitate handikoak funtsezkoak direla gizarte kohesionatua sortzeko eta mantentzeko. Bi dimentsioak konbinatzea ezinbestekoa da gizarte hobeak eraikitzeko.

GAI BEREZIAK	
Hirigintza zirkularra Bastidaren obran	
Helburua	*Justifikazioa*
Gai horrek hiru helburu nagusi modu integralean jorratzea ahalbidetuko luke: **hirigintzako espazio berrien arbuioa, onarpena eta erabilera azaltzen duten faktoreak aztertzea; hirigintza-eraldaketako prozesuak gizartea aldatzeko eta modernizatzeko prozesuetan zelan laguntzen duen herritarren artean zabaltzea; eta gizarte-berrikuntzako ekosistemak sortzen laguntzea.**	Eraikin historikoen abandonu edo utzikeriak eta hirien etengabeko hazkunde-erritmoak **"hirigintza zirkularra"** kontzeptua jartzen dute mahai gainean, gizarte-kohesioarekin, berrikuntza-ekosistemekin edo herritarren parte-hartzearekin lotutako funtsezko erronkei irtenbidea emateko aukera gisa.
Hiri-gobernantzako eredu inklusiboagoa aztertzea eta ezartzea	
Helburua	*Justifikazioa*
Gizarte-berrikuntza hiri-gobernantzako ereduetan txertatzea funtsezkoa da **erakunde sendoak eta gizarte oparoak, eraginkorrak eta erresilienteak eraikitzeko.**	**Gizarte demokratiko askok gainditu barik dituzten irakasgaien** artean, gutxiengo etnikoak, kulturalak eta afektibo-sexualak beren gobernantza-ereduetan sartzea dago. Kezka horren arrazoia da gure gizarteak gero eta askotarikoagoak eta kulturartekoagoak izateko jasaten ari diren aldaketak ez direla era berean islatzen gobernantza-organoetan.

4. Lehenetsitako gaiak eta GJHen esparruarekin duten lotura

Adituen Kontseiluaren Lehentasunen Txostenean ondorioztatu zen bezala, GJHekiko lotura 2020-2021 zikloan planteatu eta landutako gaien eta erronken hautaketaren erdigunean dago. Estrategia horrek funtsezko hiru justifikazio ditu:

1. Lehenik eta behin, aipatu bezala, 2030 Agendaren esparrua, GJHetan hedatua, erreferentziazko esparru bat da, eragile, lurralde, erakunde edo kultura anitzek partekatzen dutena. Horrek lagundu egiten du Kontseiluak proposatutako eta Zuzendaritza Batzordeak onartutako planteamenduaren inguruan BBK KUNA Institutuan sor daitezkeen ekimenak hobeto egokitu edo moldatzen elkarlanean.
2. Bigarrenik, Bizkaian bertan eta Euskadi osoan GJHen esparruan lan egiten duten ekintzak egoteak erraztu egiten du BBK KUNA Institutuaren ekimenak estrategia komunarekin bat etortzea, aldi berean, haien eragin eraldatzailea maximizatzea ahalbidetuko duten dinamikak bultzatuz.
3. Hirugarrenik eta azkenik, GJHen erreferentziak, metodologia eta mapa kontzeptual propioa sortu dituen heinean, ekimenen eragina neurtzeko adierazle partekatuak zorroztasun eta irizpide handiagoz ezartzeko aukera ematen du.

Ondoren, GJHen eta lehenetsitako gaien arteko lotura horren sintesia jasotzen da, baita azken laburpen-taula bat ere.

Ingurumenaren ikuspegitik, larrialdi klimatikoaren lehentasunak ebaluatzea lurralderako

- 13. GJH, “Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea”, zuzenean laguntzen baitu horretan.
- 17. GJH, “Garapen Jasangarrirako Mundu Aliantza Biziberritzea”, BBK Kunak proposatutako ekintza-ildoetan eragileen arteko lankidetza handia garatzea gura baita.

Lehen sektorearen garrantzia justifikatzen duen azterketa, gastronomia jasangarriaren ereduarekin lotuta, lurraldearen nortasun-ikur edo bereizgarri gisa

- 2. GJH, “Zero Gosea”, eredu berriaren alderdi sozialari lotua, bidezko banaketaren eta gizarteratzearen ikuspegitik iraunkortasun edo jasangarritasunaren alde egiten duena.
- 3. GJH, “Osasun ona eta ongizatea”, gaiak kalitatezko tokiko produktuen alde egiten baitu, kontsumitzaileen elikaduran zuzeneko inpaktu positiboa eraginez.
- 12. GJH, “Kontsumo eta ekoizpen arduratsua”, ingurumenarekiko eta gizartearekiko ekoizpen- eta kontsumo-ohitura etikoagoak sortuz.

- 13. GJH, “Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea”; izan ere, ingurumen-aztarnaren murrizketan jartzen du arreta, eta hainbat arloren –hala nola ekonomia zirkularraren eta sektore gastronomikoan hondakinak murriztearen– alde egiten du lan.
- 14 GJH, “Urpeko bizitza”, arrantza eta nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen jasangarria sustatzearen aldeko apustua egiten du, eredu gastronomiko berriaren bereizgarri gisa.

Gizarte zahartua, eta horren erronkak eta inplikazioak

- 3. GJH, “Osasuna eta ongizatea”, zuzeneko loturarekin, zahartzea kudeatzeko eredu berriak, zahartze aktiboa eta osasuntsua sustatuko dutenak, eraikitzearen aldeko apustua egiten baitu, hirugarren adinekoen bizi-baldintzak hobetuz.
- 4. GJHaren (“Kalitatezko hezkuntza”) zenbait gai, hirugarren adinekoak zaintzeko ardura duten profesionalentzat kalitatezko prestakuntza sustatuz; eta adinekoen kolektiboei hezkuntzarako sarbidea erraztearen aldeko apustua eginez, jakintza edo ezaupideei dagokienez belaunaldien arteko arrakala minimizatzeko, bereziki eremu digitalean.

Ekonomiaren eta gizartearen garapen inklusiboa

- 8. GJH, "Lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa“ eta
- 10 GJH, “Desberdintasunak murriztea”, eta 1. GJHari (“Pobreziaren amaiera”) ere zuzenean laguntzen dio, garapen ekonomikoaren eta pobrezia desagerraraztearen artean dagoen lotura estua dela eta.

Berrikuntza-ekosistemak

- 9. GJH, “Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura”, eta 11. GJH, “Hiri eta Komunitate Jasangarriak”, eta 17. GJHari (“Helburuak lortzeko aliantzak”) ere zuzenean laguntzen dio, BBK Kunak proposatutako ekintza-ildoetan garatu gura diren eragileen arteko lankidetza sendoaren ondorioz.

XXI. mendeko erronketara egokitutako hezkuntza-sistema eta metodo pedagogikoak, berdintasun- eta bikaintasun-tresna gisa

- 4. GJH, “Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta guztiontzako bizitza osorako ikaskuntza-aukerak sustatzea”, eta 10. GJH, “Herrialdeetan eta herrialdeen artean desberdintasuna murriztea”, nahiz eta XXI. mendeko erronketara egokitutako hezkuntzari erreferentzia egitean, GJH guztietan ezagutza eta inplikazioa areagotzen laguntzen duen.

Gai bereziak

Hirigintza zirkularra Bastidaren obran

- 11. GJHak (“Hiri eta Komunitate Jasangarriak”) ere zelanbait

TEMÁTICAS	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17
Evaluación de las prioridades desde el punto de vista **medioambiental de emergencia climática** para el territorio													●				●
Análisis justificativo de la relevancia del sector primario ligado con el modelo de **gastronomía sostenible** como seña de identidad del territorio		●	●									●	●				●
Sociedad envejecida y sus retos e implicaciones			●	●													
Desarrollo **económico y social inclusivo**	●							●		●							
Ecosistemas de **innovación**									●		●						●
Sistema educativo y métodos pedagógicos adaptados a los retos del siglo XXI como herramienta de igualdad y excelencia				●						●							
Urbanismo circular en la obra de Bastida						●	●				●						
Análisis e implantación de un **modelo de gobernanza urbana** más inclusivo										●	●					●	

Evaluación de las prioridades desde el punto de vista **medioambiental de emergencia climática** para el territorio
Análisis justificativo de la relevancia del sector primario ligado con el modelo de **gastronomía sostenible** como seña de identidad del territorio
Sociedad envejecida y sus retos e implicaciones
Desarrollo **económico y social inclusivo**
Ecosistemas de **innovación**
Sistema educativo y métodos pedagógicos adaptados a los retos del siglo XXI como herramienta de igualdad y excelencia
Urbanismo circular en la obra de Bastida
Análisis e implantación de un **modelo de gobernanza urbana** más inclusivo

- laguntzen die 6. GJHari ("Ur Garbia eta Saneamendua") eta 7 GJHari ("Energia Eskuragarria eta Ez Kutsatzailea") ere, hirigintza zirkularrak balioa ematen baitio urak eta energiak eraikinen eta hirien plangintza jasangarrian duten eginkizunari.

<u>Hiri-gobernantzako eredu inklusiboagoa aztertzea eta ezartzea</u>

- 10. GJH, "Desberdintasunak Murriztea", eta 11. GJH, "Hiri eta Komunitate Jasangarriak", nahiz eta, nolabait, 16. GJHari ere laguntzen dion, gobernantza-sistemetan sartzeak lotura estua baitu erakunde sendoak eraikitzearekin.

5. Lehenetsitako gaiak gauzatzea 2021-2022



2021/07/22ko on-line saioan, jarduera-proposamenaren aurrerapena aurkeztu zen, lehenetsitako gaien bideragarritasunari eta egokitasunari buruz Zuzendaritza Batzordeak egindako azterketaren ondorioz. Azterketa-prozesuan zehar egiaztatu ahal izan zen BBK KUNA Institutuak bultzatutako "zero" proiektuak eta KUNAk bultzatutako beste proiektu batzuk koherenteak zirela Kontseiluak lehenetsitako gaiekin, eta, izatez, gai horien gauzatzea zirela.

Jarduketa-proposamenak osatu egin zituen abian ziren ikerketa-ekintza proiektuak –"zero" proiektuak eta proiektu bereziak– aurreikusitako proiektuekin –Kuna-co Proiektuak deialdia– eta hausnarketa-prozesuak dibulgatzeko eta bultzatzeko beste ekimen batzuekin.

5.1. Abian diren ikerketa-ekintza proiektuak

5.1.1. Zero proiektuak

Adituen Kontseiluak lehenetsitako 8 gaiez gain –Lehentasunen Txostenean jasoak, harekin amaitutzat jo zelarik lehen hausnarketa- eta leheneste-zikloa, Zuzendaritza Batzordeak beste 3 gai lehenetsi zituen lehenago, ikerketa-ekintza proiektu gisa jorratu eta "Zero proiektuak" deitu zituenak, eta lehen ziklo horretan izandako bilakaerari buruzko informazioa eman zion Adituen Kontseiluari.

"Zero" proiektuak ikerketa-ekintza proiektuak dira, eta, beren garrantzi eta egokitasunagatik, luzapen handiagorik gabe ekin zaie. Proiektu horien ezaugarria da BBK Kunaren berezko ezaugarriak sartzea beren diseinuan eta garapenean. Hau da, ikerketa-ekintza proiektuak, zeinetan, era batera edo bestera, helize laukoitza deitutako eragileek parte hartzen duten: Akademia, Herritarrak antolatuta edo ez, Enpresa, Erakunde publikoak.

Lehen ikasturte honetan, hiru izan dira lantzen aritu diren zero proiektuak:

5.1.1.1. ESG (Environmental-Social-Governance) edo lehiakortasun jasangarriaren ziurtagiria

Proiektu honen helburu handia da lehiakortasun iraunkor edo jasangarriaren kontzeptuari lotutako enpresa-eredu berria birdefinitzen laguntzea. BBK-k berak estrategikotzat jotzen duen birdefinizioa.

Ziurtagiri hori ikerketa teoriko-praktiko batean oinarritzen da, eta enpresen jokabide eta jardueraren hainbat parametro definitzen ditu, hala nola soldata-zuzentasuna, enpresa-jarduerako zentroen kokapen-politika, guztion onerako teknologiaren erabilera edo ingurumen-jasangarritasuna. Parametro horien bidez, ahalbidetzen da jarduera-bektore horiekin konprometitzen diren enpresa guztiak errekonozitzea BBK-k, eta hori ESG parametroak (ingurumenekoak, sozialak eta barne-gobernantzakoak erabakiak hartzeko) dituen ziurtagiria edo etiketatua lortuz.

actuación mediante la obtención de un certificado o etiquetado con parámetros ASG (Ambientales, Sociales y de Gobernanza interna en la toma de decisiones).

El motor del proyecto se concreta en la redefinición del concepto de competitividad para apostar por modelos empresariales que desarrollen su actividad promoviendo no solo la rentabilidad económico-financiera en el corto plazo, sino maximizar el valor social y ambiental aportado a medio y largo plazo.

El propósito último es reconocer a todas aquellas empresas del Territorio Histórico de Bizkaia, pequeñas, medianas y grandes, que aporten valor social creando empleo de calidad, operando con responsabilidad medioambiental y social, generando riqueza en toda la cadena de valor y beneficiando a la sociedad en su conjunto.

El objetivo de este proyecto es consolidar una nueva cultura de empresa mediante la potenciación de un mecanismo (certificado/etiquetado) que ofrezca al inversor y al consumidor información de valor sobre las empresas de Bizkaia y su actuar en ámbitos de competitividad sostenible que les ayude a tomar decisiones responsables y coherentes.

Otros objetivos añadidos son la investigación en innovación social, su proyección en el conjunto de la ciudadanía y la consiguiente pedagogía social.

5.1.1.2. Bakarzain: Gura bako bakardadea eta zaintzak

Nahi ez den edo gura bako bakardadeari eta horrek gizabanakoaren, gizartearen eta teknologiaren arteko elkargunean duen eraginari buruzko azterketa teoriko-praktikoa garatzea da.

Azterketa horrek tresnak ematen dizkigu pandemia isil horren inguruko politika publikoak garatzeko eta lurraldeko enpresen garapen teknologikoak herritarren balioekin eta beharrizanekin lerrokatzeko, herritarren balioak eta premiak kontuan hartuta aurre egiten laguntzeko.

Helburu nagusia gura bako edo nahi ez den bakardadea eragiten duten faktore indibidualak, komunitarioak eta sozialak detektatzea eta kritikoki aztertzea da, kronifikazioa saihesteko, zaintzaren ikuspegi etikotik eta arreta berezia jarrita teknologiak fenomeno horretan duen eraginari. Gura bako bakardadeak zer esan nahi duen aztertuko dugu, eta bertan batzen diren egiturazko elementuak identifikatuko ditugu: generoa, pobrezia, instituzionalizazio edo erakundetzea, prekarietatea.

Egindako ikerketaren ondorioz, *"SOLEDADES. Una cartografía para nuestro tiempo"* liburua argitaratu da (Plaza y Valdes), eta ikertzaile-taldeak KUNAn aurkeztu zuen 2022ko urtarrilaren 25ean.

“BBK Kuna” eraikinaren kokapena aprobetxatuko da bere ingurunearekin harremanetan jartzeko, auzoko pertsona eta eragileekin elkarrizketa erdi egituratuak eginez.

Metodikoki jasotako “bizi-istorioak” izango dira analisi teorikoa osatzeko balioko duen dokumental eta/edo liburu bat egiteko lehengaia.

5.1.1.3. Pandemia osteko Liburu Zuria

Liburu zuriaren formatua gomendioen gida bikoitza da, aztertutako gobernantza-ereduetako funtsezko eragileek erabakiak hobeto har ditzaten laguntzeko. Proposatutako liburu zuriaren formatuak laburpen exekutibo moduko gida labur bat eta gomendio bakoitzaren garapen zehatza konbinatzen ditu.

Helburu nagusia gida bat eraikitzea da, bizi garen unea hobeto ulertzen lagunduko duen tresna gisa erabil daitekeena, baita diagnostiko egokiagoa egiteko ere, erabakiak hobeto hartzeko lagungarri eta ziurgabetasuna kudeatzeko giltzarri izango dena. Kudeaketa hori funtsezkoa da bai erakundeetan erabakiak hartzeko, bai herritarrekin komunikazio aktiboa izateko. Horrela, emaitza bikoitza planteatzen da: alde batetik, komunikazio aktiboak eztabaida publikoa hobetzen lagunduko du, eta, bestetik, planteatutako gidak ziurgabetasun- eta trantsizio-testuinguruetan erabakiak informatuago hartzen lagunduko du. Pandemiaren liburu zuriaren proposamenak bat egiten du *Horizon Europe* Europako ikerketa-esparru berriak ikerketan genero-dimentsioa lehenesteko hartutako konpromisoarekin. Adibide gisa, NBEk egin berri duen txostenaren ildoari jarraituko dio. Txosten horren arabera, koronabirusak eragindako pandemiak areagotu egin ditu gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun ekonomiko eta sozialak.

5.1.2. Proiektu bereziak

Gaiak lehenesteko prozesuan bi gai azaldu ziren, eta horietako batek argi eta garbi laguntzen zuen GJH helburuak lortzen (Hiri-gobernantzako eredu inklusiboagoa aztertzea eta ezartzea), eta besteak ez zuen zuzenean egiten (Hirigintza zirkularra Bastidaren obran). Hala ere, kontuan hartuta Bastida izan zela BBK KUNAren egoitza den eraikina diseinatu zuen arkitektoa, Zuzendaritza Batzordeak pentsatu zuen egokia zela hirigintza zirkularraren kontzeptuari heltzea. Berezitasun horregatik, eta Adituen Kontseiluaren akordioarekin, Zuzendaritza Batzordeak bi gaiak jorratzea erabaki zuen, bakar batean bilduz: “EKOMUNITATEAK. Hirigintza zirkularretik 360º hirira”.

5.1.2.1. EKOMUNITATEAK. Hirigintza zirkularretik 360º hirira.

Proiektu honek, hirigintzara eta hiri zirkularrera hasierako hurbilketa eginez, 360º hiria eratzea proposatzen du, auzo, udalerri eta/edo eskualde mailan komunitate jasangarri eta arduratsuak sortzea sustatuko duen gobernantza demokratikoko sistema bat sustatuz, horietan instituzioak, enpresak, gizarte-erakundeak eta herritar anonimoak inplikatuz.

Michael Braungart-ek eta William McDonough-ek beren *Cradle to Cradle* (2005) lanean adierazi zutenez, paradigma-aldaketaren ondorioz, edozein ekoizpen-prozesutan, zaborra prozesu paralelo berri baten elikagai gisa ulertu behar da, prozesu naturalen irudi eta antzera. Ekodiseinuan, hondakinen ekoizpenaren murrizketan, espazioen erabileran eta energiaren kontsumoan pentsatu behar da. Prozesu itxi bat imajinatu behar da, prozesu baten hondakinak prozesu horren elikagai biologiko gisa edo beste paralelo baten elikagai teknologiko gisa balio dezan, eskema zirkularra sortuz atzeraelikadura guztiz eraginkorrekoa. Paradigma-aldaketa hiriko eraikin eta espazioen birziklapenari eta berrerabilpenari aplikatzean sortzen da hirigintza zirkularra.

Baina zergatik gelditu puntu honetan? Zergatik ez aplikatu zirkulartasuna hiri eta lurralde guztiei?

Braungarten eta McDonoughen proposamena eta lurzoruaren, espazioen, baliabideen eta energiaren erabilerari dagokionez hirigintza zirkularraren lorpenak hiri osoarentzako pentsatzea da kontua. Hori guztia hiri jasangarriak sortzeko helburuarekin, testuinguru berrietara egokitzeko, beren akatsetatik ikasteko eta etorkizunera proiektatzeko gai izango direnak belaunaldi berriekiko arduratsu eta elkartasunez jokatuz.

360º hiriaz ari gara, gobernantza-eredu erabat demokratikoa sustatuko duena, abiapuntu hartuta ikuspegi zeharkakoa (ingurumenaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren garapen jasangarria barne hartzen duena), transektoriala (erakunde publikoak, enpresa pribatuak, gizarte-erakundeak eta herritarrak barne hartzen dituena) eta transteknologikoa (byte, atomo, neurona eta geneen teknologiak baliatzen dituena). Hau da, sistema, egitura eta prozesu bat, inplikatutako pertsonak prestakuntzaren eta ikaskuntzaren bidez ahalduntzen dituena; informazio partekatuan gardena dena; komunikazioaren eta entzutearen bidez konfiantza sortzen duena; aktoreen arteko baterako sorkuntza eta erantzunkidetasuna ahalbidetzen dituena; ekimen kooperatiboak abian jartzera bultzatzen duena; eta erronka partekatuen inguruan esperientzia egokiak eta konplizitatea ahalbidetzen dituena.

Zelan garatu ezaugarri horiek dituen sistema bat? Nola egin egingarri, egoki eta bideragarri?

Proiektu honen helburua komunitate jasangarriak eta arduratsuak sortzea baino ez da, instituzioak, enpresak, gizarte-erakundeak eta herritarrak integratuz, auzo, udalerri eta eskualdeetako ingurumen-, ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapenari ekin diezaioten.

Zirkulartasunaren kontzeptua hirigintzara eta ingurumenera, hiri osora eta gobernantza-eredura eramatea da kontua.

5.2. KUNAn aurreikusitako ikerketa-ekintza proiektuak

5.2.1. KUNA-co proiektuak

Kuna-co Proiektuak deialdia norgehiagokako deialdi bat da, eta Euskadin, oro har, eta Bizkaian, bereziki, 2030 Agendari lotutako erronkei irtenbideak bilatzen dizkie, Bizkaian aldaketa eragin dezaten.

Zehazki, BBK Kuna Institutuak lehenetsitako erronkei erantzungo dieten gizarte-berrikuntzako proiektuak finantzatu gura ditu BBK-k.

Proiektuak eragile anitzeko taldeek aurkeztu dituzte (gutxienez helize laukoitza ordezkatzen duten bi aktorek, bakoitza izaera ezberdinekoa izanik: unibertsitatea, enpresa, administrazio publikoa edo sozietate zibil antolatua) eta gaia ikertzeko proposamen bat aurkeztu dute, gutxienez ekintza batekin emaitza gisa, emaitza horrek transferigarria eta aplikagarria izan beharko duelarik.

Kuna-co Proiektuak 2022 deialdian proiektuek gai hauei erantzun behar diete:

- Migrazioa eta oparotasuna: garapen ekonomiko eta sozial inklusiboa.
- Trantsizio digital humanista.
- Gastronomia jasangarria.
- Hautatutako proiektuek (aurkeztutako gai bakoitzeko bana) BBKren finantza-laguntza jasoko dute, eta BBK Kunan lekuak erabiltzeko aukera izango dute. (Joan den apirilaren 25ean amaitu zen proposamenak aurkezteko epea)

5.3. Lehenetsitako gaiak bultzatzeko beste proiektu batzuk

5.3.1. Ekitaldia: Gizakion betebehar eta eginbeharren gutun unibertsala eta Saramago urteurrena

"... Orduan, oinezko herritarrok, erabil dezagun hitza eta har dezagun ekimena. Gure eskubideak aldarrikatzen ditugun suhartasun eta indar berberaz, eska dezagun gure betebeharrak betetzea ere. Agian

mundua pixka bat hobea izaten hasiko da…” esan zuen Jose Saramagok Stockholmen bere Diskurtsoetako batean, 1998an Literaturako Nobel Saria eman ziotenean.

Herritarrei egindako dei horren ondorioz, eta urteetan lanean jardun ostean, 2018an, “GIZAKION BETEBEHAR ETA EGINBEHARREN GUTUN UNIBERTSALA” dokumentua NBEko hainbat batzordetan aurkeztu zen, eta Antonio Guterres idazkari nagusiari eman zitzaion.

2022an Jose Saramago jaio zela 100 urte beteko dira, eta horrek aukera ematen digu haren lanari buruz hausnartzeko eta haren ondarearen zati hori ezagutarazteko, gizartea eraldatzeko ahalmen handia baitu.

Hori dela eta, datorren martxoaren 31n, KUNA eraikinean, mahai-inguru bat egingo da adituen artean (txosten hau argitaratzen denerako egina izango da jada). Adituetako batzuk haren ingurune hurbilenekoak izango dira, eta bertaratzen diren herritar guztiekin partekatuko dituzte beren gogoetak.

Saramagoren deia oinezko herritarrei egin zitzaien, baina unibertsitateek jaso zuten eta hainbat erakunde eta herritar atxiki zitzaizkion. Era berean, martxoaren 31ko jardunaldia aukera paregabea izango da herritar antolatuek eta, oro har, unibertsitateek eta ikerketa-zentroek, administrazio publikoak eta enpresak “Gizakion Betebeharren eta Eginbeharren Gutun Unibertsala” ezagutu eta berari atxikitzeko.

5.3.2. Green Digital Congress

Datuetan oinarritutako politika publikoek hain espekulatiboak ez diren erabaki-ereduei lagunduko diete, arriskuak eta ziurgabetasunak murrizten. Egungo pandemiak azkartu egin du digitalizazioaren garrantzia eta Adimen Artifizialaren (AA) garrantzia era guztietako erronka eta arazoei aurre egiteko, ez bakarrik osasun publikoari dagokionez, baita lanari, kudeaketa administratiboari, politika sozialei, herritarren parte-hartzeari eta larrialdi klimatikoari dagokienez ere.

Hala ere, nahiz eta AA eta, oro har, ekonomia digitala ingurumenaren babesa errespetatzen duten garapen gisa aurkezten diren, hots, lehengai urriak gehiegi erabiltzen ez dituena eta kutsadura gutxi sortzen duena, ez dago halako “desmaterializaziorik”, AAren hedapenak eta teknologia digitalek baliabideen eta energiaren kontsumo handia dakarte-eta.

Egoera horren aurrean, hausnarketarako eta analisirako gune bat sortzea da helburua, trantsizio ekologikoa eta energetikoa trantsizio digitalarekin lerrokatzeko beharrizanari buruz, Garapen Jasangarrirako Helburuak eta 2030 Agenda gauzatzen laguntzeko; hortik digitalizazio jasangarri eta berde baten aldeko eta teknologia digitalak larrialdi klimatikoari aurre egiteko erabiltzearen aldeko ondorioak espero dira.

Horretarako, nazioarteko topaketa –Green Digital Congress– bat egitea planteatzen da, adituen arteko eztabaida eta herritarren parte-hartzea barne hartuko dituen formatuarekin, auzoko pertsonengan arreta berezia jarrita.

BBK Kunaren bereizgarri den erakundeen arteko lankidetzaren beste adibide bat bezala, ekimen hau Bilboko Udalarekin batera planteatu da. Ildo horretan, *Bilbao European Encounters (BEE)* delakoen IX. edizioa (2022) izango da "Green Digital Congress" eta bi egoitza izango ditu: KUNA eraikina, gizarte-eragileekin elkarreragin handiena izango duen kongresu-zatirako, eta Azkuna Zentroa, adituen arteko eztabaidarako, biak zabalik izango direlarik herritarrentzat oro har. Biltzarraren diseinuan bertan planteatzen da "helize laukoitz"eko eragileen parte-hartzea. Herritar antolatuek eta, oro har, unibertsitateek eta ikerketa-zentroek, administrazio publikoak eta enpresak hartuko dute parte aipaturiko kongresuan, eta beraien eztabaiden eta ondorioen onurak jaso ahal izango dituzte.

"BEE 2022: Green Digital Congress" azaroaren 17an eta 18an izango da, eta amaiera ezin hobea emango zaio KUNA eraikina inauguratu zeneko lehen urteurrenari, klima-aldaketaren aurkako nazioarteko egunetik (urriaren 24a) oso hurbil.

6. Etorkizun hurbilerako ikaskuntzak



Kontseiluaren gogoeta- eta lehenespen-saioen zikloa amaitu ostean, Kontseiluaren bilkurak egiten jarraitu da honako hauetarako: (1) kontuak emateko eta (2) jarduera zehatzak proposatzeko, baina baita (3) Kontseiluari KUNA ekosistemaren beste proiektu batzuk ezagutarazteko eta (4) nazioarteko joerak zuzenean ezagutzea ahalbidetuko duen ezagutza aditua Bizkaira ekartzeko. Ezin bestela izan, azken saioek (5) *Think Tank* beraren funtzionamenduan eta dinamiketan hobekuntzak proposatzeko ere balio izan dute.

Hain zuzen ere, 2021/07/22ko on-line saioan, KUNA ekosistemaren beste ekimen batzuk ezagutarazi ziren, hala nola “BBK Kuna 2030 Kideak” proiektua eta “Auzoko Aholku Batzordea”. 2021/09/29ko aurrez aurreko bilkuran, BBK-ko presidente Xabier Sagredok parte hartu zuen Kontseiluan, eta Bizkaiko enpresetan lehiakortasun iraunkorra garatzeko eta ezartzeko BBK-k duen konpromisoa azaldu zuen (ESG –Environmental-Social-Governance– ziurtagirian gauzatutako konpromisoa). Azkenik, 2021/12/15eko aurrez aurreko bilkuran, *Think Tank* eredu baten proposamena aurkeztu zen, horrantz eboluzionatu behar duelarik BBK KUNA Institutuak. Saioa osatzeko, Sara Baliñak –kasu hartan gonbidaturiko adituak– informazio-hitzaldi inspiratzaile bat eman zuen, “Datorren etorkizuna: megajoerak eta lehentasunak” izenburupean.

Erronkak identifikatu eta lehenesteko hausnarketa orokorreko lehen zikloa bete da, eta horren emaitza gisa, datozen urteetan jorratzeko gai sorta bat sortu da. Proposatutako ereduaren ardatza, hain zuzen ere, gai horiei heldu eta ekitea izango litzateke, eta horretarako, ikerketa-ekintza proiektuak bultzatuko lirateke, bai eta, horietako bakoitzari lotuta, Kontseiluan aditu-taldeak eratu ere.

7. Conclusión



2020-2021 aldiko jarduera-txosten honetan diseinatu eta zabaldutako planteamenduaren eta estrategia orokorraren ondorioz, BBK KUNA Institutuak lehentasunezko 11 gai identifikatu ditu eta bi jarduera-ildo sortu ditu bultzatzen ari den ikerketa-ekintza proiektuei dagokienez: (1) “Zero proiektuak” eta “Proiektu bereziak” (aribidean) eta (2) KUNA-co proiektuak (2022ko deialdi publikoa, proiektu horien aurkezpen-epea joan den apirilaren 25ean amaitu zen). Jarduera-ildo horiek osatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dira, helize laukoitzeko eragileen arteko topaguneak sortzeko, Kontseiluak lehenetsitako gaietan sakontzen jarraitzeko eta, aldi berean, BBKren beraren beste ekimen batzuk osatzeko.

Era berean, BBK KUNA Institutuaren lehen bizi-zikloak eragindako barne-hausnarketako prozesu baten ondorioz, haren funtzionamendu-ereduak bilakaera bat izan du: lehenetsitako gaiak identifikatzera bideratutako hausnarketatik ikerketa-ekintzako proiektu zehatzak bultzatzera. Hori guztia kanpora begiratzea ahaztu barik.